

UNESCO ETA WORLD MONUMENTS FUND-EKO NAZIOARTEKO ARKITEKTOAK HONDARRIBIAN DAUDE ONDAREA AZTERTZEN



UNESCO eta Argentinatik etorritako profesionalak ari dira Hondarribian

"Ondaredun Hondarribia" izeneko foroan parte hartuko duten arkitektoak hirian daude ondarea aztertzen. Atzo gauean iritsi ziren eta gaur goizean Aitor Kerejeta Alkateak eta Txomin Sagarzazu Kulturako zinegotziak egin diete harrera Hondarriiko Udalean. Ekitaldian izan dira hitzaldiak emango dituzten hiru arkitektoak, Ramon Gutierrez, Lluís García eta Pablo Fernández Longoria, TEUSA enpresako gerentea den Carlos Hevia, eta Angel Morua eta Arkaitz Orbegozo arkitektoak, azken hau TEUSAkoa. Berez, Arma Plaza Fundazioak antolatutako jardunaldiak dira, eta horiek egiteko kanpo finantzazioa lortu du.

Jarraian, Jaizkibel mendira joan dira eta ondoren Guadalupeko Gotorlekua ikus ahal izan dute. Otorduaren ondoren, itsasoz Hendaiara pasa dira bertatik Hondarribiaren beste ikuspegi bat izateko. Portua eta arrantzaleen etxebizitzak ikusita, Alde Zaharrera igo dira, han Arma Plaza, Kale Nagusia, Parrokia eta Paradorea ikusi dutelarik. Azken orduan Klink Elkartean ohorezko dantza eta afaria eskainiko zaizkielarik.

Aitor Kerejeta Alkateak esan duenez, "ohore handia eta aukera bikaina da Hondarribiarentzat tamaina honetako arkitektoak hemen egotea gure ondarea ikertzen. Bi egunez tamaina honetako arkitektoak hemen edukitzea oso garrantzitsua da. Pozik gaude benetan izaten ari diran arretarekin eta ematen dizkiguten ideiekin".



ARQUITECTOS INTERNACIONALES DE UNESCO Y WORLD MONUMENTS FUND YA TRABAJAN EN EL PATRIMONIO DE HONDARRIBIA



Profesionales de la UNESCO y arquitectos de Argentina trabajan en Hondarribia

Los arquitectos participantes en el Foro 'Hondarribia de los Patrimonios' ya están en la Ciudad estudiando el patrimonio existente. La comitiva ha sido recibida hoy por el Alcalde Aitor Kerejeta en el Salón de Plenos. Estaban los arquitectos conferenciantes Ramón Gutiérrez, Lluís García y Pablo Fernández Longoria, el gerente de TEUSA Carlos Hevia, y el concejal de Cultura Txomin Sagarzazu, así como los arquitectos Angel Morúa y Arkaitz Orbegozo de TEUSA. Se trata de unas jornadas organizadas por Arma Plaza Fundazioa, que ha obtenido financiación externa para llevarlas cabo.

Tras el acto de recepción, la comitiva ha subido al Monte Jaizkibel y el Fuerte de Guadalupe. Posteriormente, tras el almuerzo, han pasado a Hendaia en barco para tener otra perspectiva de Hondarribia. Luego han visitado el barrio de la Marina y las casas de los Pescadores, para llegar al Casco Histórico, donde han podido disfrutar de la Plaza de Armas, la Calle Mayor, la Parroquia y el Parador. Acabarán la jornada en la sociedad KLINK, donde serán agasajados con un aurresku de honor y una cena.

El Alcalde Aitor Kerejeta se muestra "más que satisfecho por poder acoger a arquitectos de renombre internacional en Hondarribia para estudiar nuestro patrimonio. Están participando con mucho interés, están ellos también muy satisfechos y la valoración que hacemos por el momento no puede ser más positiva".

